



Arartekoaren 2017S-9-17 Ebazpena, 2017ko abuztuaren 31koa. Horren bidez, Usurbilgo Udalari iradokitzen zaio berriz azter ditzan udalerrian jarritako abiadura gutxitzeko elementuak eta oinezkoentzako pasaguneetako seinaleak.

Aurrekariak

1. Arartekoak (...) jaunaren kexa jaso du, Usurbilgo Udalak ez baitio erantzun, ezta neurririk hartu ere, udalerriko bide publikoetan irtenguneei eta oinezkoentzako pasaguneei buruzko arauak betetzen ez diren arren.

Izan ere, 2016ko otsailaren 5ean, herritar horrek idazki bat aurkeztu zuen udalean, hiri barruko bidean jarritako irtenguneei ez dutela araubidea betetzen eta oinezkoentzako pasaguneei pintatzeko modua ez dela egokia adierazteko. Hala ere, ez zuen jaso erantzunik eskaera oinarritzeko erabilitako gogoeten inguruan (besteak beste, honako hau aipatu zuen idazkian: Arartekoaren 10/2011 Gomendio Orokorra, abenduaren 14koa, "Abiadura murriztaileak hiri eta hiriarteko bideetan" izenburukoa).

2. Kexan azaldutako kontuak aztertu ondoren, Arartekoak informazioa eskatu zion Usurbilgo Udalari, baita izapidetutako espedientea ere, eta, hala bazegokion, erabiltzaileen eta bizikletarien segurtasuna kontuan harturik, egindako irtenguneei egokitasunari buruzko txosten teknikoak, bereziki elementu horiek jartzeko orduan aintzat hartutako irizpide teknikoak (arau teknikoak eta abar) jasotzen zituztenak.
3. Udalak bidali egin zuen eskatutako txostena eta jakinarazi zion Arartekoari planteatutako kontua aztertzeko asmoz interesdunarekin bilera egin nahi izan zuela eta horretarako harremanetan jarri zela, baina herritarrak uko egin ziola gonbidapenari. Jasotako dokumentazioan, azaldutako kontuari buruzko txosten teknikoak nabarmentzen dira.
4. Jasotako erantzuna ikusita, Arartekoak beste dokumentu batzuk eskatu zituen, hasierako irizpena eman ondoren. Hain zuzen ere, hauxe esan zuen:

"Erantzunean adierazten da kexa aurkeztu zuen pertsonarekin bilera bat izaten saiatu direla baina interesdunak ezetz esan duela. Udalak ezarri ditzakeen harremanak gorabehera, interesdunak harreman horiek onartu edo ukatu ahal ditu. Izan ere, ez dago bileretara joatera behartuta.

Hala eta guztiz ere, udalak badu idatziz erantzuteko betebeharra, behar bezala arrazoituz eta ebazpena emateko ezarritako gainerako betekizunak betez, Herri-administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 88. artikuluekin bat etorriz.

Horri dagokionez, Arartekoak ez du jaso eskatutako egiaztapena, hau da, interesdunaren eskaeraren izapidetzea bete izanaren egiaztapena, aipatutako terminoetan. Hala, bilera batek ezin du egiaztapen hori ordeztu.

.../...





Emandako dokumentazioari eta txostenei dagokienez, jarraian kexaren edukiaren inguruan kontuan hartu beharreko zenbait gogoeta helaraziko dizkizugu, hori izapidetze aldera.

Udal-aparejadorearen txostenak apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren II. eranskinaren 3.5. artikulua aipatzen du; horren bidez, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartu ziren.

Hain zuzen ere, aipatutako atalak gomendatzen du pasabidea kolorazioaren bidez seinalezatzeko (banda zuriak eta gorriak); hala ere, dekretu hori 2000koa da. Orduan, Zirkulazioko Araudi Orokorra onetsi zuen urtarrilaren 17ko 13/1992 Errege Dekretua zegoen indarrean; araudi hori Trafikoari, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua aplikatzeko eta garatzeko onetsi zen.

Hala ere, gaur egun, Zirkulazioko Araudi Orokorra onetsi duen azaroaren 21eko 1428/2003 Errege Dekretua dago indarrean, martxoaren 2ko Legegintzako 339/1990 Errege Dekretuak onetsitako Trafikoari, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua aplikatzeko eta garatzeko. Horrek hauxe ezartzen du 168 c) artikuluan:

'c) Marca de paso para peatones. Una serie de líneas de gran anchura, dispuestas sobre el pavimento de la calzada en bandas paralelas al eje de ésta y que forman un conjunto transversal a la calzada, indica un paso para peatones, donde los conductores de vehículos o animales deben dejarles paso. No podrán utilizarse líneas de otros colores que alternen con las blancas.'

Horrenbestez, gaur egun, zebra-bideetan ezin dira lerro gorriak eta zuriak erabili, geroago onetsitako arauketa batengatik. Gainera, bi arauen arteko kontraesana egon izan balitz, lehiak dagokion eremu materialean dituen arauetara jo beharko zatekeen.

Irtenguneei dagokienez, ez da eman irtengune bakoitzarentzat urreikusitako ezaugarriak jasotzen dituen egikaritze-proiektua. Horrez gain, ez da aurkeztu egindako irtenguneen eta egikaritzeko erreferentziatzat hartu diren arauetara egokitzearen inguruko txosten teknikoa (ez da gauza bera proiektuan edo egikaritzearen egindako aurreikuspena) eskatutako terminoetan, instalatutakoaren planoak eta argazkiak barne."

5. Bigarren informazio-eskaera horri erantzunez, besteak beste, irtenguneak egiteari buruzko proiektu eta txosten tekniko batzuekin loturiko dokumentazioa bidali zuen Usurbilgo Udalak. Helarazitako txostenak aztertuta, laburbilduz, honako kontu hauek nabarmendu behar dira:

- Errepidearen trazadura aldatzeko urbanizazio-proiektua. Zubiaurrenea kalea eta Alperroburu kaleko biribilgunea (2011). Irtenguneak jartzeko orduan, Udalak berak, aurretik jarritako irtenguneak kontuan hartuta,





lehen ezarri zituen irizpide berberak erabili ziren. Helburu nagusia oinezkoei (eta ez ibilgailuei) lehentasuna ematea eta babestea izanik, irisgarritasun-arrazoiak ere direla medio, zebra-bide altxatuak egin ziren eta zuri eta gorritz margotu ziren.

- Alperroburu kalea eraberritzeko proiektua (I. fasea, 2015). Pasabide goratuak egiteko, Sustapen Ministerioaren irailaren 23ko 3053/2008 Aginduan aipatutako irizpide teknikoak erabili ziren. Izan ere, agindu horren bidez, Espainiako errepideetan abiadura murrizteko eta zeharkako banda ohartarazleak jartzeko agindu teknikoa onartu da (BOE, 261. zk., 2008ko urriaren 29koa).
- Iartza-Pikaola/Murkaiku bidearen proiektua (2014). Lehen aipatutako Sustapen Ministerioaren aginduan adierazitako irizpideak erabili ziren.
- Kale Nagusiaren urbanizazioa (2001). Proiektua egin zuen ingeniariak bere 2017ko maiatzeko txostenean adierazi duenez, proiektu horretan ez zen jaso diseinu berezirik eta Obraren Zuzendaritzak sen onaren arabera eta(edo) garai hartan ohikoak ziren praktikekin bat egikaritu zuen lana. Izan ere, ez dute gogoratzen gai horri buruzko araudirik zegoenik. Era beran, txostenaren arabera, egun ere ez dago bete beharreko araudirik, Usurbilgo Udalak bere araudi bat egiten ez badu.
- Egin diren beste pasabide goratu batzuetan Udalak erabilitako irizpideak:
 - o Lehen, zebra-bide goratuak pintura zuri eta gorritz margotzen ziren, hala ere, bada denboraldi bat marra zuriak bakarrik erabiltzen direla.
 - o Egun ikus daitezkeen marra gorriak aspaldikoak dira eta berriz margotu behar direnean, zuriz baino ez dira margotzen.
 - o Udalaren helburua zera da: zebra-bide guztiak, goratuak zein besteak, pintura zuriz bakarrik margotzea eta egun arte egon daitezkeen marra gorriak kentzea.

Gogoetak

1. Arartekoak hainbat kexa jaso ditu urteotan, autonomia-erkidegoko errepideetan eta hiri barruko bideetan gehiegizko abiadurak sortzen dituen segurtasun-arazoak direla eta. Herritarrek arazo horretarako irtenbideak eskatu dituzte eta, beste neurri batzuen artean, herri-bideetan abiadura murriztaileak jartzeko eskatu dute, oinezkoen segurtasuna hobetzeko.

Horiek horrela, eskaera horri erantzunez, herri eta hiri gehienetan, dagokion bide-seinaleztapenez gain, ibilgailuen abiadura murrizteko eta trafiko-istripuak saihesteko, gailu bereziak jarri dira, hala nola oinezkoen pasabide goratuak edo gailenduak, "mando-bizkar" izeneko abiadura-murriztaileak (sakanguneak), kuxin europarrak eta abar. Hala ere, gailu horiek eduki behar dituzten ezaugarriak ezarriko lituzkeen araudi teknikorik eza dela medio, administrazio bakoitzak bere irizpideak erabili ditu, eta ondorioz, nabarmenak dira aldeak sistema batetik bestera, bideen ezaugarriak oso antzekoak direnean ere.





Bestalde, herritar batzuk kaltetuta sentitu dira oztopo horiek instalatzearen ondorioz eta desadostasuna adierazi dute, jarritako abiadura-murriztaileen ezaugarri teknikoak direla eta. Izan ere, pertsona horien iritziz, gehiegizko abiadura bezalako bistako arazoari irtenbidea emateko, beste arazo batzuk sorrarazi dira, hala nola kalteak gidarien osasunean, ibilgailuetan, zarata handiagoa, irisgarritasun-araudia ez betetzea, mugikortasun zailtasun handiagoak desgaitasuna dutenentzat eta abar.

Testuinguru honetan, aurrekarietan aipatu dugun abenduaren 14ko 10/2011 Gomendio Orokorrean honako behar hau jaso genuen: oreka puntua bilatuko duten agindu teknikoak ezartzea, instalakuntzen segurtasun eta eraginkortasun baldintzak, eta guztientzako gutxieneko erosotasun estandarrak bermatzeko. Ildo horretan, gomendioak ondorioztatu duenez, beren eskumeneko zirkulazio-bideetan abiadura-murriztaileak jarri dituen administrazio publiko bakoitzak bere araudi bat eduki beharko luke, instalakuntza horien ezaugarri teknikoak garatzeko; halakorik ezean, gutxienez, lehendik dauden araudietako bat formalki onartu eta erabili behar du, Bizkaiko Foru Aldundiak bere lurralde-eremuko udalerrietan esanbidez aurreikusi duen bezala.

Gomendioa egin denetik egoera ez da asko aldatu eta urtero jasotzen ditugu kontu horri buruzko kekek. Mota guztietako zirkulazio-bideetan instalakuntza horiek egiteko orduan nahitaez bete beharreko oinarriko araudirik ez dagoenez, udal mailan planteatzen dira zailtasun eta arazo handienak irtenguneak jartzeari dagokionez. Batzuetan, udalak beren irizpideez baliatzen dira, jarritako irtenguneen mota, kokapen zehatzaren egokitasuna, tarte jakin batean instalatutako gailuen kopurua eta abar salatzen dituzten erreklamazioei erantzuteko.

Hori guztia dela eta, erakunde honek hainbat jarduketa egin ditu azaldutako arazoei irtenbidea bilatzeko asmoz. 2016an jarduera bat ofizioz hasi zuen kontua Euskadiko Bide Segurtasuneko Batzordean planteatzeko, hori baita bide-segurtasunarekin zerikusia duten eskumenak erabiltzen dituzten administrazio publikoen arteko koordinazioa errazteaz arduratzen den kontsulta-organoa; ofiziozko jardueraren beste helburua koordinazio hura hobetzea zen, trafikoaren eta bide-segurtasunaren arloetan diharduten erakunde publiko eta pribatuak elkartuz eta beren parte hartzea bultzatuz.

Gauzak horrela, Arartekoaren iritziz, interesgarria izan liteke Batzordeak agindu tekniko batzuk idaztea bultzatuko balu, horretarako lehiaketa bat antolatuz. Eudelek zein eragindako profesionalek –hiri barruko bideetan abiadura-murriztaileak jartzeko orduan erreferentzia izan daitezkeenek– parte hartu ahal izango lukete lehiaketan.

Batzordearen barruan bi lantalde sortu ziren: bata, hiru foru-aldundietako ordezkariak eta Eusko Jaurlaritzako Garraio Sailekoek osatu zuten; beste taldea, berriz, EUDELEk bultzatu zuen, autonomia-erkidegoko hainbat udal bilduta. Horren guztiaren ondorioz, EUDELEN Batzorde Agintariak 2017ko martxoaren 14an egindako bileran "Abiadura-murriztaile desberdinen oinarriko parametroak" izenburuko proposamen teknikoa onartu zuen, behar izanez gero, halako pasabide goratuak jarri nahi dituzten udalek kontsultak





egiteko eta/edo erreferentzia-eredu gisa erabiltzeko (EUDELen proposamena l. eranskinean dago).

Laburbilduz, trafikoa murrizteko elementu horiek –pasabide goratuak, kuxin europarrak edo "mando-bizkarrak", besteak beste– diseinatu, eraiki eta seinaleztatzeko zentzuzkotzat jotzen diren oinarrizko irizpide tekniko batzuk ezarri ditu proposamen-agiriak.

2. Azaldutako testuinguru orokorrean aztertu behar da Usurbilgo Udalaren jokaera kasu horretan.

Lehenik eta behin, azpimarratu behar da udalak azken urteotan (2014tik aurrera) kontratatu dituen teknikari edo aholkularitza-enpresek egindako eta egikaritutako proiektuetan diseinatutako pasabide goratuak jartzeko orduan aintzat hartu direla Sustapen Ministerioaren 2008ko aginduan –instalakuntza horiek bete beharreko irizpide teknikoak finkatzen dituen lehen arauketan– ezarritako irizpideak.

Gainerako instalazioei dagokienez, sen ona edo garai hartako ohiko irizpideak erabili direla esan da, egindako instalakuntzen ezaugarri teknikoak zehaztu gabe.

Edonola ere, erakunde honek azpimarratu behar du garrantzitsua dela egindako instalazioaren egokitasuna (arazoa konpontzeari begira) abiadura-murriztaileak jarri ondoren ebaluatzea, aurrerapen teknikoak eta aintzat hartzekoak diren beste inguruabar batzuk une oro kontuan izateko.

lido horretan, jarritako instalazioen antzintasuna dela eta, eta EUDELen proposamen teknikoa aintzat hartuta, komenigarria izango litzateke udalerrian instalatutako abiadura-murriztaileak berrikustea. Azterketa horren arabera, proposamen tekniko berriekin eta, hala badagokio, erabiltzaile guztiek zirkulazio-bideak behar bezala erabiltzearekin zerikusia duten eta aintzat hartu behar diren beste alderdi batzuekin bat ez datozen instalakuntzak egokitzea planifikatu beharko luke udalak, batzuen zein besteen beharrak behar bezala aztertuta.

3. Azkenean, zuri eta gorri margotutako zebra-bideei dagokienez, udalak azken erantzunean aitortu du zebra-bideak azaroaren 21eko 1428/2003 Errege Dekretuari egokitzea aurreikusten duela. Aurreko atalean aipatu denez, komenigarria izango litzateke udalak araudia betetzen ez duten zebra-bideen inbentario bat egitea eta, dagokion balorazioa egin eta aurrekontu-finantzaketa finkatu ondoren, zentzuzko epe bat ezartzea, zebra-bide guztiak zuriz bakarrik margotuta egon daitezen.

Horregatik guztiagatik, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11.b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, honako iradokizun hau egin nahi dugu:





IRADOKIZUNA

1. Berriz azter ditzan udalerrian dauden abiadura-murriztaileak eta, hala badagokio, planifika dezan zirkulazio-bideak erabiltzaile guztiek behar bezala erabiltzeko egokiak diren instalakuntzak egokitzea.
2. Zentzuzko epe batean egoki dezan zebra-bideak margotzeko modua, legez ezarritakoa betetzeko eta marra zuriekin txandakatzen diren marra gorriak kentzeko.

